

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 209/2024 Erabakia, apirilaren 16koa. Onespena ematea Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2024-2025eko deialdia ebazteko beharrezkoak diren zenbatekoak esleitzeari

Apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauak Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen du.

Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 31ko 3/2023 Foru Dekretuaren bidez, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bitartez Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei 2024-2025 aldian laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onetsi ziren.

Aipatutako dekretuaren hirugarren xedapenean, "10203. G/459100/76200106 - Obra eta Zerbitzuen 2024-2025 Foru Plana" aurrekontu partidan honako zenbateko eta urteko ordainketa hauek esleitu ziren:

- 18.311.571,00 euro, 2024. urtean.
- 18.311.571,00 euro, 2025. urtean.

Era berean, hasiera batean 300.000,00 euro gorde ziren deialdi horren barruan diruz lagundutako obrei dagozkien ordainsari teknikoan emakidari aurre egiteko, urtez urte honela banatuta:

- 150.000,00 euro 2024. urtean.
- 150.000,00 euro 2025. urtean.

Bosgarren xedapenari jarraituz, dirulaguntzak emateko eta erreserba hori egiteko, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko da Arabako Lurralde Historikokoaren 2024ko eta 2025eko aurrekontuetan.

Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldiko aurrekontuko kredituak, 2024ko ekitaldirako luzatuak, eta horien zenbatekoa eta dagozkien konpromiso kredituak zehaztea onesten duen urtarrilaren 23ko 11/2024 Foru Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren I. eranskinetik ondorioztatzen denez, "10203. G/459100/76200106 - Obra eta Zerbitzuen 2024-2025 Foru Plana" partida zuzkitu da, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2024-2025 deialdia finantzatzeko, honako zenbateko eta urteko kuota hauekin:

HASIERAKO AURREKONTUA	2024	2025	2026	GUZTIRA
Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2024-25	2.515.931,00	19.389.126,00	16.873.195,00	38.778.252,00

Hala ere, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak obra emakida berrietarako 39.126.584,49 euroko dirulaguntzak eman nahi ditu 2024-2025eko deialdian.

Beraz, deialdi honen kargura aurreikusitako aurrekontu erabilgarritasunaren azken zenbatekoa (9/2017 Foru Arauaren zortzigarren xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabera finantzatutako jarduerak barne) honako hau da:

EREDUAREN BALIABIDEAK	2024. URTEA	2025. URTEA	2026. URTEA	GUZTIRA
Obra emakidak 2024-2025eko deialdian	3.264.263,49	19.089.126,00	16.773.195,00	39.126.584,49
Larrialdietarako deialdia 2024	300.000,00	200.000,00		500.000,00
2024-2025 deialdiko OZFPren ordainsariak		100.000,00	100.000,00	200.000,00
Guztira	3.564.263,49	19.389.126,00	16.873.195,00	39.826.584,49

Horrenbestez, ondoren aipatzen diren zenbatekoak 2024ko ordainketa kredituaren kontura eta 2025 eta 2026ko konpromiso kredituen kontura kontsignatzea proposatzen da, 2024rako luzatutako Arabako Foru Aldundiaren 2023ko aurrekontuaren "G/459100/76200106/0000 - Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2024-25" partidaren kontura:

POSIZIOA	URTEA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
1	2024	2024-25eko Foru Planaren deialdia (2024. urtea)	3.264.263,49
2	2025	2024-25eko Foru Planaren deialdia (2025. urtea)	19.089.126,00
3	2026	2024-25eko Foru Planaren deialdia (2026. urtea)	16.773.195,00
4	2025	2024-25eko Foru Planaren ordainsarien erreserba (2025. urtea)	100.000,00
5	2026	2024-25eko Foru Planaren ordainsarien erreserba (2026. urtea)	100.000,00
Guztira			39.326.584,49

Aginduzko txostenak aztertu dira, eta Lurralde Orekaren eta Lurraldearen Antolamenduaren Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Jarraian zerrendatzen diren kopuruak 2024ko ordainketa kredituaren kontura eta 2025 eta 2026ko konpromiso kredituen kontura kontsignatzea, 2024rako luzatutako Arabako Foru Aldundiaren 2023ko Aurrekontuaren "G/459100/76200106/0000 - Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2024-25" partidaren kontura:

POSIZIOA	URTEA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
1	2024	2024-25eko Foru Planaren deialdia (2024. urtea)	3.264.263,49
2	2025	2024-25eko Foru Planaren deialdia (2025. urtea)	19.089.126,00
3	2026	2024-25eko Foru Planaren deialdia (2026. urtea)	16.773.195,00
4	2025	2024-25eko Foru Planaren ordainsarien erreserba (2025. urtea)	100.000,00
5	2026	2024-25eko Foru Planaren ordainsarien erreserba (2026. urtea)	100.000,00
Guztira			39.326.584,49

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 16a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

LAURA PÉREZ BORINAGA